



EBAZPENA, DESKARBONIZAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KANONAREN DIRU-SARREREN APLIKAZIOA ETA EUSKADIKO PARKE EOLIKO ETA FOTOVOLTAIKOEN ERREGISTROA ARAUTUKO DITUEN XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua eta Xedapen Orokorak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua arabera, arau-xedapenen proiektuak prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek.

Kontsultak alderdi hauek jaso behar ditu:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Hori dela-eta, xedapena egin baino lehen aurretiazko kontsultaren izapidea bete nahi da, arauak ukitzen dituen herritarrek eta erakundeek parte hartu ahal izan dezaten eta ekarpenak egin ahal izan diezazkiten planteatu den arauari.

Hori dela eta, kontsulta:

- Zabalik egongo da etorkizuneko arauak uki ditzakeen instituzio publiko eta pertsona fisiko guztientzat, nahiz organizazio, entitate edo elkarteentzat.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren webgunean argitaratuko da.
- Hamar egun balioduneko epea ezarriko da ukitutako instituzioek, herritarrek eta beren entitateek egokitzen jotzen dituzten iradokizunak eta oharra aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan garatzen ari garena, aurreikusitako legezko egiturari jarraikiz. Gainera, kontsulta-izapide hau arau-proiektua idatzi baino lehenago eta xedapen orokorrak egiteko "Prestaketa" fasearen barruan egingo da, Xedapen Orokorak Egiteko Prozeduraren abenduaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitakoa.



Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kontsulta publikoaren izapidea egitea, energia berriztagarrien kanonaren diru-sarreraren aplikazioa eta Euskadiko parke eoliko eta fotovoltaikoen erregistroa arautzeko agindu baten proiektua egin aurretik.

Bigarrena.– Arauak ukitutako herritarrek eta entitateek, horrenbestez, agindu honen eranskinean jasotako alderdiei buruz duten iritzia helaraz dezakete hamar egun balioduneko epean, agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren
eguna.

**GUILLERMO ALLENDE ARANGUIZ
DIRECTOR DE DESCARBONIZACIÓN**

ERANSKINA

1.– Ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak.

Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legeak energia berriztagarrien kanona sortzea aurreikusten du. Kanon horrek Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarrien instalazioak ezartzea zergapetzen du, ingurune naturalean eta lurraldean eragin ditzaketen eragin eta inpaktu kaltegarriengatik.

Legeak ezartzen du, halaber, kanona aplikatu eta kudeatzeko, Administrazioak parke eolikoen eta eguzki-parke fotovoltaikeen erregistro bat eraman beharko duela. Erregistro horren egitura eta edukia, bai eta hura konfiguratzeko eta mantentzeko prozedurak ere, erregelamendu bidez zehaztuko dira.

Ondoren, Energia Berriztagarrien Kanonaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 9ko 236/2025 Dekretuak erantzuna ematen dio Legeak berak aurreikusten dituen gaietako batzuetan egiten duen erregelamendu-garapenerako deiari. Hala ere, dekretu horrek ez ditu zehatz-mehatz zehaztu energia berriztagarrien kanonetik eratorritako diru-sarrerak banatzeko irizpideak eta prozedurak, eta oinarritzko jarduera-esparru bat baino ez du ezarri.

Parke eolikoen eta eguzki-parke fotovoltaikeen erregistroaren kasuan ere, dekretuak oinarritzko esparru juridikoa baino ez du ezartzen, eta adierazten du erregistroaren funtzionamenduaren erregelamendu-garapena hura kudeatzeko eskumena duen organoak egingo duela, eta organo horrek onartu beharko dituela inskribatzeko, eguneratzeko eta kontsultatzeko prozedurak.

Azaldutakoa ikusita, proposatutako araua egin behar da energia berriztagarrien kanona eta Euskadiko parke eoliko eta fotovoltaikeen erregistroa osorik arautzeko, kudeatzeko eta lortu nahi diren helburuak lortzeko.

2.– Araua onartzeko premia eta egokiera.

Egin nahi den araua onartzeko beharra eta egokitasuna Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legeak eta Energia Berriztagarrien Kanonaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 9ko 236/2025 Dekretuak erregelamendu-garapenerako egiten dituzten deien ondorio dira, figura horren erregulazioa osatzeko.

Kanonarekin lortutako diru-sarreraren xedea, balizko onuradunak eta bildutako diru-sarrerak banatzeko adostutako kudeaketa-teknikak garatzea eta zehatz-mehatz arautzea funtsezkoak dira zerga-figura honen azken helburua bermatzeko.

3.– Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.

Egin nahi den arauaren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Onuradunak eta bildutako funtsak esleitzeko irizpideak zehaztea, baita horien mailaketa ere.
- Bildutako funtsen transferentzia egiteko mekanismorik egokiena definitzea.
- Euskadiko parke eoliko eta fotovoltaikoen erregistroan inskribatzeko, eguneratzeko eta kontsultatzeko prozedurak arautzea.

4.– Bestelako irtenbide alternatiboak.

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak direla-eta, ezinbestekoa da dekretu-proiektu hau egitea, ez baita bestelako irtenbiderik ikusten.